



IRAKASLEEN GALDEKIZUNA

Lankide zaitugun horri, agur. Dakizunez, gure ikastetxea hizkuntza normalkuntzarako proiektuan murgilduta dago. Hori dela-eta, ikastetxe honetako hizkuntz egoera zein den aztertzen ari gara. Zure parte hartzea oraingo honetan ezinbestekoa zaigu. Gauza bat jakin nahi dugu: zure lankideen artean norekin egiten duzun **beti** —edo askotan— **euskaraz** eta norekin **beti** —edo askotan— **gaztelaniaz**. Kasu bakoitzean izen bakarra idatzi behar duzu. Ez baduzu inorekin euskaraz (edo gaztelaniaz) egiten, «inorekin ez» idatzi behar duzu. Hala ere, saia zaitetz hutsik ez uzten; izan ere, taldeko ohiko harremanak ezagutu nahi baititugu. Pentsatu ondo, eta zintzo erantzun. Bete ondoren, Ikastetxeko Hizkuntz Normalkuntzako Arduradun Teknikoari eman.

ADIBIDEZ:

Pepirekin euskaraz egiten duzu beti eta *Fernandorekin* beti —edo askotan— gaztelaniaz. Horrela bada, zure erantzuna ondokoa izango da:

EUSKARAZ egiten dut.....**Pepi**.....-(re)KIN

GAZTELANIAZ egiten dut.....**Fernando**.....-(re)KIN

Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzako Arduradun Teknikoak, zuri dagokizun zenbakia emango dizu. Erantzun-orrian, jakintza-alorra, ikasmaita eta zenbakia idatzi behar dituzu. Esandako zenbaki horixe idatzi behar duzu, zure zenbakia alegia: gogoratu ez duzula zure izena idatzi behar. Beste zerbait edo xehetasunen bat jakin nahi baduzu, galdetu orain Ikastetxeko Hizkuntz Normalkuntzako Arduradun Teknikoari. Lanean hasitakoan pentsatzen duzuna idatzi lagunarekin hitz egin gabe. Zure laguntza garrantzitsua da. **Eskerrik asko.**

Erantzuna:

Ikasmaita: Ikastaldea: Zenbakia:

• **EUSKARAZ** egiten dut -(re)KIN

• **GAZTELANIAZ** egiten dut..... -(re)KIN